# EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATZEA. LEHEN HEZKUNTZA

## AURKITU EGINGO DITUGU



### BILATU BERDINTASUNA

Desberdinkeria identifikatzea berdintasuna ikusaraztea bezain garrantzitsua da gure ikasleentzat. Batzuetan “izendatzen ez dena ez da existitzen” esaten dugun bezalaxe, “ikusten ez dena ez da existitzen” ere aintzat hartu behar da. Ez baldin bagara gai gure inguruan berdintasuna identifikatzeko, askoz ere zailagoa izango da berdintasuna eraikitzea.

### HELBURUA

- Eguneroko bizitzako egoerak genero-ikuspegitik aztertzea.
- Emakumeen eta gizonen roletan egon diren aldaketak baloratzea.
- Errespetuz eta elkarrizketarako jarrera irekiaz parte hartzea.
- Jarrera enpatikoa agertzea.

### GARAPENA

Jarduera honi ekin aurretik, komeni da  ariketa egitea, giro lasaia lortzeko eta ikasleak era horretako jarduueretara ohitzeko.

Dinamika hau lantzeko modu honetara antolatuko dugu eskola fisikoki: espazio zabal bat libre utziko dugu, ikasleak mugi daitezen. Hasieran, ikasleak espazio horren erdigunean jarriko dira, guk dinamika azaltzeko.

Jarduera honetan, gure ikasleak fisikoki jarri behar dira egoera bakoitzaren arabera ematen dizkiegun bi aukeretako baten aldean. Honako hauek dira aukerak:

- Ikusten dut: bertan jarri behar dira planteatutako egoera ikusi duten ikasleak.
- Ez dut ikusten: bertan jarri behar dira planteatutako egoera ikusi ez duten ikasleak.

Dagokion egoera planteatzen dugunean, ikasleak “ikusten dut” eta “ez dut ikusten” adierazteko guneetan jarriko dira. Gero, egoerari buruz eztabaidatuko dugu eta, amaitzean, ikasgelaren erdigunera itzuliko dira. Horrelaxe arituko gara jarraian datozen egoeretan.

**Hauek dira landuko ditugun egoerak:**

- Emakume bat autobus bat gidatzen
- Gizon bat etxeko komuna garbitzen
- Neskato bat patinete gainean
- Mutiko bat panpina batekin jolasean
- Emakume bat kirola egiten
- Gizon bat balleta egiten
- Neska bat zuhaitz batera igotzen
- Mutil bat bazkaria egiten
- Emakume zientzialari bat
- Gizon bat haur txiki bat zaintzen

## EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATZEA. LEHEN HEZKUNTZA

Egoera horietako bakoitzean, hitza emango diegu ikasleei non ikusi duten, ohikoa den, behin bakarrik ikusi duten, hori egin duena ezaguna zen edo kalean ikusi zuen, eta abar komentatzeko.

Dinamika honetan eztabaida sortzeko, galdera hauek egin diezazkiekegu:

- Zein egoeratan ez duzue inoiz mutiko edo gizon bat ikusi?
- Zein egoeratan ez duzue inoiz neskato edo emakume bat ikusi?

Azkenik, funtsezkoa da emakumeen eta gizonen gaineko genero-rolak nola hausten ari garen aztertzea, rol horiek egin nahi duguna eragozten baitute.

**IRAUPENA**

Jarduerak ordubete iraun dezake.

**BALIABIDEAK**

- Ikasgela handia, mugitu ahal izateko.

**GEHIAGO JAKITEKO:**

Esparru ezberdinetan garrantzitsuak izan diren emakumeak hizpide dituzten liburuak balia ditzakegu:

- “Las chicas son de ciencias: 25 científicas que cambiaron el mundo”. Egileak: Irene Cívico eta Sergio Parra
- “Científicas: cocinan, limpian y ganan el premio nobel (y nadie se entera)”. Egilea: Valeria Edelsztein.
- “Mi primer libro sobre ellas”. Egilea: Marta Rivera de la Cruz.
- “Las astrónomas, chicas estrella”. Egilea: Sara Gil Casanova.
- “Mujeres en la ciencia: 50 pioneras intrépidas que cambiaron el mundo”. Egilea: Rachel Ignotofsky
- “Supermujeres, super inventoras: Ideas brillantes que transformaron nuestra vida”. Egilea: Sandra Uve